

euskal abestiak zuen ahotsetan



...eta kitto!

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte, Urkizu, 11 - solairuarte. 20600 Eibar. Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri, Koldo Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Maider Aranberri eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa, Maider Aranberri eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Kaixo, Urkiko **Arrateko Andra Mari** ikastetxetik! Hemen gaituzue berriro gure berri ematen, jai eta ekintzaz betarik. Azaroaren 29an azoka ederra izan genuen eskolan, bertso, kantu, ogitarteko eta txerri zozketa barne. Arratsaldean herri kirolak egin genituen eta oso ondo pasatu genuen.

Jai egunarekin indarrak berritu genituen eta hilaren batean, 4, 5 urte eta 1. eta 2. mailakoak txotxongiloak ikustera joan ginen Unibertsitate Laboralera. Hurrengo egunean, 3. eta 4. mailakoak joan ziren. 5. eta 6. mailakoak ez zaizkigu ekintzarik gabe gelditu: hilaren 1ean herri kirolak izan zituzten Euskal Federazioak antolatuta. Hilaren 2an "Odol emaileen" tailerra izan zuten eskolan. Oso interesgarria. Eta egun horretan bertan, Xibak antolatuta, Euskal Pilotan parte hartu zuten.


Beste egun handi bat, denok ospatu duguna: Euskararen Eguna. Goizean denok

elkartu ginen eskolako sarreran egun hori gogoratzeko eta ospakizunarekin hasteko abestiak kantatu genituen, eskolako partaide guztiak giroan sartzeko.

Orain lasaitasun pixka bat hartuko dugu azken txanpa prestatzeko, Gabonen inguruko ekintzekin. Hurren arte, lagunok!

La Salle Isasiko ikasleok, abenduan, jaiotza baten puzzlea osatzen joan gara denon arteko hizkuntz erabilerarekin. Abenduaren 9an, 4 urtekoak Olentzero-ren etxera joan ziren, ikazkinari bisita egitera eta opariak eskatzera, Gabonak laster datoz-eta!

3. eta 4. mailakoak txotxongilo emanaldi bat ikustera ere joan gara. Eta hilaren 22an, Gabonetako jaialdia ospatu genuen, jai zoriontsu hauek alaitzeko asmoz. Denek izan zuten abeslari trebezia erakusteko aukera, 2 urteko txikiek eta baita 12 urteko nagusiek ere.



Lotu irudial eta esanahial

😊 - Harrituta nago. Triste nago. 😞

😮 - Gerturatu aru nago. Isilik nago. 😬

😊 - pozur nago. zer diorzu? 😊
Irene. Rodriguez 4. maila Amaia
exkolo

HITZ MISTERIO TSUA

Asmatu smaitza eta esaldia

$$95 \times 15 =$$

$$25 \times 7 =$$

$$82 : 2 =$$

$$4 \times 83 =$$

$$5 \times 81 =$$

$$13 \times 2 =$$

$$5 \times 14 =$$

$$18 : 2 =$$

$$62 \times 2 =$$

$$165 \times 195 =$$

$$12675 = S$$

$$130 = I$$

$$9 = A$$

$$135 = A$$

$$175 = K$$

$$49 = R$$

$$332 = I$$





$$405 = S$$

$$26 = T$$

$$70 = K$$

YAGO RAMOS
Amaia eskola 4. M

Ze hitz erakusten da animakien buruan?




Malen Txurruka
Amaia eskola 4. Maila

Lorena Etxaluze

5	3		7		
6			1	9	5
	9	8			6
8			6		3
4			8	3	1
7			2		6
	6			2	8
			4	1	9
			8		7

Lauki bakartzean letik 9ra zenbaki
gustiak gon behar dute, baina baita
ilara eta zutabe bakartzean ere,
eta ezin da zenbakirik errepikatu.



Mikel Torueto - 4. maila - A maila eskola

Gizon batek taberna batean zerbitzariari:

- Eman garagardo bate do bestela...!

Eta zerbitzariak:

- Edo bestela zer?

- Beste Coca Cola bat.

Vitor Da Silva



Baserritar batek beste bati:

- Jon, zure behiek erre egiten al dute?

- Ez.

- Ba, orduan zure baserria erretzen ari da.

Asier Díaz

Kotxe bat aldapan behera doa frenorik gabe. Emazteak esaten dio senarrari:

- Hilko gara pareta horren contra.

- Lasai, STOP seinale bat dago lehenago.

Marta Osua

Eskolara etorri da ikasle berria eta andereñoak esaten dio:

- Nola esaten da sudurra ingelesez?

Eta ikasleak esaten dio:

- No sé.

Eta andereñoak:

- Oso ondo!

Endika Cifrián



Ingeles bat eta euskaldun bat itsasontzi batean daude eta ingelesa uretara jausten da:

- Help, help! -esaten du ingelesak.

Eta euskaldunak:

- Nik ez dut gelik, baina txanpua daukat nahi baduzu.

Laura Pagoaga

Zergatik leloek sartzen dute egunkaria hozkailuan?
Berri freskoak izateko.

Kelya Zazo



Bazen behin konkordun bat taberna batean sartu eta whisky bat eskatu zuena. Tabernariak whiskia ipini zion, konkordunak zurrupada bat eman eta zera esan zuen:

- Hau gorputz txarra utzi didana whiskyak.

Orduan tabernariak:

- Barkatu, baina zu gorputz horrekin sartu zara tabernara.

Mohamed Malki

Behin batean Garbantzito bere auzokoaren sagarrak lapurtzen ari zen eta udaltzainak galdetu zion:

- Nola duzu izena?

- Garbantzito.

- Ongi da, Garbantzito, 5euroko isuna sagarrak lapurtzeagatik eta beste 5 euro lapikotik irtetzeagatik.

Josebe Hurtado

Zer egiten du panadero batek Ameriketan?

Papanamericano...

Ibai

Zer esaten dio lauki eskaleno batek karratu bati?

Zein zuzena zaren!

Julio



Ea, Gaizka, ba ote dakizkizu bi izenorde? Nork, nik? Bikain, mutiko. Ea, hurrengo.



Gabonak hemen dira!

Bai, bai, gezurra ematen badu ere, Gabonak gain-gainean ditugu. Badirudi udako oporrak hor bertan ditugula, eta konturatu gabe Olentzeroren zain gaude denak. Beno, Olentzeroren zain eta oporren zain, baietz? Azken hilabete hauetan lan mordoa egin duzue (batzuk beste batzuk baino gehiago), eta horrek merezi du atsedena. Opor luzeak dituzue zain, ondo pasa beraz!

Aspertzeko denborarik ere ez duzue izango Gabonetako oporretan, zer egin, entzun eta ikusi izango baitugu datozen egunotan.

Artisau Azoka

Abenduaren 17tik urtarrilaren 5era arte, Gabonetako 5. Artisau Azoka izango dugu Eibarko Bizikleta plazan. Abenduaren 26an eta 30ean umeentzat eskulan tailerra izango da arratsaldeko

5etatik aurrera. Abenduaren 28an Rap ikuskizunaz gozatuko dugu eta urtarrilaren 2an, berriz, ipuin kontalaria izango da.

Errota Gaztelekua

Abenduaren 18tik urtarrilaren 6ra arte hainbat gauza antolatu dira: abenduaren 18tik 23ra arte gabonetarako girotu eta olentzero egingo dute. Abenduaren 23tik urtarrilaren 5era arte Gabonetako opariak egingo dira erreziklaiko materialekin: karterak, mobilentzako fundak, giltzarriak eta agendak. Eta abenduaren 26an abenturazko filmearen emanaldia izango da. Abenduaren 28an ping pong txapelketa, urtarrilaren 2an komediazko filmea eskainiko da, urtarrilaren 3an futbolin txapelketa, urtarrilaren 6an txiste lehiaketa eta, egun berean, merendola eta lagun ezkutua.





Gabonetako Haur Parkea (GUAI)

Abenduaren 26tik 31ra bitartean izango da Armeria Eskolan 11.00etatik 13.30etara eta 16.00etatik 20.00etara (abenduraren 31n 19.00etan itxiko da). Zer egongo da? Parke iraunkorra: jolastokia adin desberdinetako umeei zuzenduta (2-12 urte bitartekoak); Planetarium, zezen mekanikoa, WII eta Puzgarriak; Tailerrak: txikien tailerra, irratia, gozogintza, makilaia, eskulanak, heziketa biala; Lehiaketak: egunero "Eibar ezagutzen" galderen lehiaketa.

Musika Tresnen Fabrika

Abenduaren 29an "Musika tresnen fabrika" antzezlanaz gozatzeko aukera izango da Armagintzaren Museoa, arratsaldeko 17.00etan. Antzezlanaz 10 urte arteko umeentzat izango da eta merendola ere eskainiko zaie.

AGENDA OSOA

Abenduaren 9tik 17ra: Olentzerori zuzendutako

eskutitzak jasoko dira Portalea eta Pegorako buzoietan.

Abenduak 24:

17.00etan: opari banaketa udaletxean.

18.00etan: kalejira, Pantxika, Kaleetan Kantuz abesbatza eta J.B. Gisasola Musika Eskolako soinu ikasleen eta trikitilarien laguntzaz: Untzaga, Calbeton, Bidebarrieta, Urkizu, Errebal, Julian Etxeberria, Toribio Etxebarria eta Untzaga.

Urtarrilak 5:

17.00etan: Dantza Garaikidea, Ipurua Gimnasia Erritmikoa eta Eibarko Ballet taldeen emankizuna Astelena frontoian.

19.00etan: Errege Magoen kabalgata. Kabalgata amaitu ondoren, Errege Magoek gutunak jasoko dituzte udaletxean.

Horrez gainera, abenduaren 18tik urtarrilaren 9ra arte, atrakzioak izango dira Txaltxa Zelain eta anbulategiko eta Urkizuko parkeetan.

Armairuan usain gozoa izateko poltsatxoak

Eskulan honekin zuen erropa edo bestelakoak gordetzen dituzuen armairuan usain gozoa izango duzue. Guk egindakoak kamiseta formakoak dira, baina zuen gustura edozein forma emateko aukera duzue.

Materiala:

- + Kolore ezberdinetako feltroa
- + Itsasgarria edo kola
- + Usaina duten lore-siku poltsa
- + Artaziak
- + Alanbrea

Pausoak:

- 1.- Orri zuri batean egin kamiseta baten irudia (edo nahi duzuen) eta moztu artaziekin.
- 2.- Behin irudia moztuta, nahi duzun koloreko feltroan birritan kalkatu, eta moztu bi zatiak.
- 3.- Itsasi bi kamisetak ertzeetatik, erdiko aldean hutsunea utziz.
- 4.- Bi aldeak ondo itsatsita daudenean, apaindu kamiseta nahi duzun moduan, patrikak egin, lepoa, korbata, lazoak...
- 5.- Kamisetak lehor daudenean, usaina duten lore-sikuz bete.
- 6.- Alanbrearekin esekigailu txikiak egin kamisetak zintzilikatzeke.


Sartu armairuan eta ummmm, hori da usain gozoa!



1



2




3



4



5



KOARTZA ETA LOGUREA

Aspaldi koartza ibaiaren ertzean egoten zen. (...) Zer? Ez dakizue nor den koartza? Bai, txori hanka luze hori, lepo luzea eta moko luzea duena, goitik behera grisa dena. Ba kontua da koartza beti ibaiaren ertzean egoten zela erdi lotan. Beti begiak ixteko zorian. Beti lo taukika. Ikustekoa zen. Logurearen eraginez burua aurrerantz erori eta mokoak lokatzetan sartzen zitzaion.

Behin batean Martin arrantzaleak aholku bat eman zion:

“Zergatik ez duzu burua atzerantz botatzen?”. Baina alferrik. Koartzak burua beti aurrera. Joera hori zuen. Martin arrantzaleak beste aholku bat eman zion:

- “Zergatik ez duzu logurea hiltzen?”

- “Jakina”, pentsatu zuen koartzak. “Logurearen zain geratuko naiz. Begiak zabal-zabalik itxarongo diot. Eta hurbiltzen zaidanean, zazta! Alde-rik alde zulatuko dut mokoaz”.

Horixe egin zuen: Begiak zabalik edukitzen saiatu. Baina betazalak behera zihoazkion, pertsiana baten antzera, gero eta beherago. Ilundu zue-
nean, begiak lausotu egin zitzaizkion. Zerbait zetorrela iruditu zitzaion, baina bapatean... burua behera. Lo taukia.

- “Ez ba! Hurrengoan ez dut kalerik egingo”.

Hurrengoan ere begiak lausotu egin zitzaizkion eta eraso egiteko une be-
rean lo kuluxka egin zuen.

- Ez ba! Hurrengoan bai”, pentsatu zuen koartzak ernegatuta.

Baina bere kalte-
rako “hurrengo” ez
da oraindik iritsi,
eta koartzak ibai
ertzean jarraitzen
du, logureak erreta.
Horregatik, koartz
bat ikusten baduzue,
zaila egingo zaizue
jakitea lo dagoen
ala logurearen zain
dagoen.

Eskatu aitari edo
amari ipuin hau gaur
gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



OSAGAIAK:

- Txokolate tableta (zuria, beltza edo marroia izan daiteke)
- Katilu bat
- Plastikozko koloretako goilareak
- Kolore, forma eta era guztietako txokolatina txikiak edo gozokitxoak.



Zeini ez zaio txokolatea gustatzen? Zuri bai, besteari ere bai, amatxori, aitatxori, amonari... Jaki gozo horrekin gauza berezi bat egiteko proposamenarekin natorkizue oraingoan. Erraza baino errazagoa da gainera. Baina badakizue, sua erabiltzeko eskatu nagusiei laguntasuna. On egin!



PAUSOAK:

- 1.- Urtu txokolatea Maria bainutan.
- 2.- Behin txokolatea urtuta dagoenean, bota plastikozko goilaratxoetan.
- 3.- Minutu batzuk itxaron eta gero, jarri txokolatearen gainean gozokitxoak.



**Txokolatezko
goilara
bereziak**



www.izenaduba.com

Olentzeroren etxea internet bidez ikusteko aukera emango dizue web-orri honek. Olentzero badatorrela-eta, askok egongo zineten edo egun hauetan joatekoak zarete, Olentzerori bisita egin eta opariak eskatzeko. Baina inoiz ez da berandu eta Olentzerok opariak ekarri eta gero ere, eskerrak ematera joan zaitezke bere etxera. Sorpresaz beteriko eguna biziko duzue bertan, Olentzerok Mungian duen etxe magikoan: filmak, jokoak, tailerrak, Mariren kobazuloa, Tartalo... Ez galdu aukera eta egiozue bisita, internet bidez bada ere, gure Olentzerori!

www.jalgi.com/olentzero/kantak.htm

Nerekin bat etorriko zarete Gabonen xarmaren zati handi bat abesten datzala. Gabon gauean nork ez du bere herrian, auzoan edo familia giroan abesten? Zibertxoko honetan ere tartetxo bat eskaini diote musikari. Bi ataletan banatuta dago: bat abesteko eta bestea entzuteko.

Baina ez hori bakarrik. Guzti horretaz gain, beste hainbat gauza-rekin ondo pasatzeko aukera emango dizue web-orri honek: denborapasak, pantailarako irudiak, postalak, Olentzeroren gutuna... Aspertzeko aitzakiarik ez duzue, beraz, aurtengo Gabonetan! Ondo ondo pasa eta zorionak!



ARIES

Konturatu gabe amaitu da 2010. urtea. Egia esan, ederto aprobetxatu duzu urtea. 2011. urte zoragarria duzu zain orain! Amodio kontuetan bikain!

TAURUS

Opariak eskatzen bikaina zara, Taurus, baina zintzoa izan zara benetan? Den-dena dakit-eta! Beno, Olentzerok ikatz pixka bat ekartzen badizu ez haserretu, beste zerbait ere eroriko da-eta.

GEMINIS

Ziur zaude Olentzerok ez dizula ikatzik ekarriko, baina ni ez nitzake hain seguru egongo. Gogoratzen dituzu urtean zehar egindako bihurrieriak?

CANCER

Gabonak oso gustuko dituzu, baina ez opariengatik, oporrak dituzulako baizik! Ba oraintxe duzu atseden hartzeko aukera, eta nahi duzun lo mordo egiteko ere bai.

LEO

Alfonbra hegalaria? Ilargira joateko espazio-ontzia? Jope, Olentzero gaixoa! Ez zaitez horrelakoa izan eta gainontzeko umeek eskatzen dituzten gauzatxoak eskatu zuk ere.

VIRGO

Ez zeniola Olentzeroren gutunari seilurik jarri? Ai ene! Lasai, seguru berak zure gutuna aurkitzen duela, eta etxeraino eramango dizkizu opariak. Ez da munduan Olentzero baino finagorik!

LIBRA

Zortea zure alde izango duzu. Neska edo mutil batek keinua egingo dizu, lurrean euroa aurkituko duzu eta 7 zenbakiak zortea ekarriko dizu. Hori bai, etxeko zapailak kendu ere ez!

SCORPIUS

Zer duzu nahiago: Gabon gava ala Gabon Zahar gava? Lasai, ez erantzun orain, baina gauza bat: ez abestu larregi, euriarekin Gabonak tristeagoak baitira.

SAGITARIUS

Gogoratzen iazko Gabonak? Haiek bai barreak! Ea aurtentz bezain ondo pasatzen duzun. Ziur baietz! Gogoan izan, amatxo eta aitatxori, gutxienez, mahaia jartzen lagundu!

CAPRICORNIUS

Gabonetako bazkari eta afarietan zaindu pixkat gehiago jaten duzuna: hainbeste turroi, mazapai, txokolate, urdaiazpiko, langostino...

ACUARIUS

Pentsatu ondo zer eskatu nahi diozun Olentzerori. Sarri egiten duzu, bi minutuz jolastu eta armairuan gorde, betirako! Edo bestela, nahi ez dituzun opariak emaezu holakorik ez duten umei, eskertuko dute-eta.

PISCIS

2011. urteak ezusteko politik ekarriko dizkizu. Gustatzen zaizun pertsona horri esaiotzu sentitzen duzuna, lasaiago egongo zara-eta. Ikastekin saiatu eta segi horrela, gero fruituak jasoko dituzu-eta. Baina gogoan izan, zure ahalegina izan behar dela, bale?

ZURE IRITZIA... nire iritzia!

Nagusien eta umeen artean
desberdintasun handiak izaten
direla pentsatzen dugu, baina
zer gertatuko litzateke galdera
berdina egiten badiegu
nagusiari eta haurrari?
Horrenbesteko aldea
egongo ote da?

Zein izan da Olentzerok ekarritako oparirik gustokuena? Zergaittik? Noiz jaso zenduan?

Eskarne Baglietto (ama)

Gehixen gogoratzen doten oparixa kopin haundi bat da, bere tamainakua zan eta sustua hartu neban zabaltzerakuan. Ondiokan nere gurasuen etxian gordetzen dot, nere eskolako uniforme eta guzti. 5-6 urte nittuala ekarri zestan Olentzerok eta ez dot iñoiz ahaztuko opari hori.

Jon Rua (semia)

Nere oparirik gustokuena Nintendo DS izan zan eta, gaiñera, gehixen erabiltzen doten oparixa eta jostaillua da. Oso politta da; entretenidua eta dibertigarrixa dalako gustatzen jata. 7 urte nittuanian ekarri zestan Olentzerok.

Silvia Arrizabalaga (ama)

Bizikletia ekarri zestanian goguan dakat, 9-10 urte eukiko nittuan, eta orduan ez zeguazen gaur eguneko opari handirik, eta bizikletia erregalo inportantia zan. Gabonak familixiakin pasatzen dogu eta aspaldi ikusi bariko osaba-izebak ikusteko aprobetxatzen dogu. Oin gauza praktikuaguak eskatzen dittugu, motxilak...

Igor Kruzelaegi (semia)

Bi erroberatako patinetiak ilusiño haundixa egin zestan. Asko gustatzen jata. Ondiokan ondo dago eta erabiltzen dot. Gabonetatik gehixen gustatzen jatana Olentzero da.



Eibarren kantua nagusia abenduaren 3an



HONDARTZAN!!

Maitane Arévalo
4. Maila.

EGUN BATE-
AN BI LAGUN
AMAI A ETA NE-
REA HONDARTZAN
RA JOAN ZIREN.

